

**ERTZAINAK OMENTZEKO ETA POLIZIA-LANA SARITZEKO DOMINAK
EMATEKO EKITALDIA / HOMENAJE A ERTZAINAS FALLECIDOS Y
ENTREGA DE MEDALLAS MÉRITO POLICIAL**

2015-06-07 Oiartzungo Komisaldegia – Comisaría de Oiartzun 07-06-2015

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, Ertzaintzaren ordezkari eta kideok, jaun andreok, ekitaldi honen zentzuaz eta sailburu andreak esandako guztiarekin bat eginik, egun on guztioi. Bonjour a tous, soyez bienvenus.

Oroimena, aitormena eta omenaldia. Horiek dira gaur elkartu gaituzten hitzak. Lehen hitzak, lehen oroimena ETaren biktimentzat izango da.

Aste honetan biktimen elkarteekin izan dugun lan jardunaldian hartutako konpromisoa berretsi nahi dut. Horrela esaten genuen: “Biktima guztiek dute egiarako, justiziarako eta ordainerako eskubidea.” ETak hildakoen ertzain askoren senideak hemen zaudete gurekin. Gure gogoan, gure buruan eta gure bihotzean daudela eta zaudetela adierazi nahi dizuegu.

Zentzugabeko indarkeriaren injustizia jasan zenuten eta gaur, berriz, euskal gizartearen oroimena, aitormena eta omenaldia jasotzea nahi dugu.

Nuestro primer recuerdo, nuestro primer reconocimiento y homenaje es compartido con las familias que sufristeis el daño injusto causado por el terrorismo de ETA. Queremos que sepáis que cada ertzaina que perdió la vida estará siempre en el recuerdo de esta institución y de este pueblo.

Hoy les homenajeamos con nuestra palabra, reiterando el compromiso expresado este mismo viernes pasado en el encuentro con las víctimas del terrorismo. Decíamos así: “Nos comprometemos a que la memoria y el honor de las víctimas no queden relegados por una mirada al futuro que olvide el pasado. Vamos a construir el futuro juntos, pero sobre la base de la clarificación y la crítica explícita sobre lo sucedido”. Nuestro homenaje es la dignidad de la memoria y el reconocimiento público de la Ertzaintza.

Hago mías todas las palabras manifestadas por la señora consejera en relación, también, a esta semana que está terminando, y por eso también recuerdo, reconocimiento y homenaje, también, a quienes fallecieron en acto de servicio. La Ertzaintza es una institución de personas al servicio de las

personas. Una institución con valores, que suma los valores individuales de cada ertzaina que demuestra con cercanía, dedicación y entrega lo que significa el servicio público a la ciudadanía.

A los familiares que han sufrido esta pérdida irreparable, les queremos decir que la sufrimos con ustedes y que la recordaremos siempre con ustedes. Nuestro compromiso es preservar el legado de cercanía, compromiso y responsabilidad que caracterizó a las personas fallecidas y que forma parte del patrimonio de la Ertzaintza.

Bigarren hitzak, gizartearen zerbitzuan bizia galdu zuten ertzainak gogoratzeko. Ertzainak ziren, segurtasun zerbitzua eskaintzen zioten gure herriari eta bizia galdu zuten. Gaur beraien eta Ertzaintza osoaren balioak ekarri ditugu gogora: hurbiltasuna, konpromisoa eta gizarte ardura. Balio horiek sendotzea da egin dezakegun omenaldirik sakonena.

Bide honetan, nire hirugarren ideia: “eredugarri izatea”. Gaur eskaintzen ditugun dominak, eredugarriak diren jarrerak omentzen dituzte. Hona hemen zein den eta izan behar den guztion norabidea: elkarlanaren bidez Ertzaintzaren balioak sendotu, Ertzaintzaren erakundea indartzeko.

“Ejemplaridad” es la palabra que une el pasado de la Ertzaintza con el futuro. Ejemplaridad en el comportamiento y la entrega de quienes perdieron la vida y de quienes hoy hemos reconocido en este acto de distinción y homenaje. La institución de la Ertzaintza será ejemplar si todas y cada una de las personas que la componen son ejemplares. Este es nuestro compromiso y nuestro reto.

La sociedad demanda nuestro servicio, nuestra atención personal y cercana, nuestra presencia y ayuda. La sociedad vasca demanda una Ertzaintza ejemplar.

Cada ertzaina ha elegido ser servidor público, dedicar su capacidad profesional a garantizar la seguridad y el bienestar de la ciudadanía, de cada una de las personas que convivimos en nuestra Comunidad, Euskadi. Nuestro mejor homenaje a quienes nos han antecedido es prestar este servicio con la máxima ejemplaridad. Este es el compromiso, individual y colectivo, que compartimos y asumimos cada día.

Aitormena eginez batera, zorionak zuek guztioi eta eskerrik asko ekitaldi parte hartu duzuen guztioi. Aurrekoei eskaini diezaiokegun omenaldirik hoberena, Ertzaintzaren zerbitzua hobetzen jarraitzea da.

Eskerrik asko, goian beude, eta egun ona izan dezazula.